

LABURPEN EXEKUTIBOA

ORKESTRAKO KOADERNOAK

01/2023

ISSN 2340-7638

LURRALDE GARAPENERAKO METODOLOGIA ETA METODOA

IKERKETA-EKINTZAREN BIDEZ
ERAGINKORTASUNA ETA
DEMOKRATIZAZIOA
BATERATZEKO IKASKETAK

Miren Larrea

Ainhoa Arrona

Eva Sánchez

Naia Begiristain

Mikel Gaztañaga

Pablo Costamagnaren hitzaurrea

2023

Laburpen exekutiboa. Orkestrako koadernoak, zk. 01/2023

© Lehenengo autoreia, bigarren autoreia

© Lehiakortasunerako Euskal Institutoa –Deusto Fundazioa

www.orkestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Koaderno hau inspiratu duten ikerketa prozesuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren arteko lankidetzaz testuinguruan egin dira, Etorkizuna Eraikiz-en esparruan. Lurralde garapenerako ekintza-ikerkuntza lurraldeko eragileen eta ikertzaileen arteko elkarrekiko konfiantzako testuinguruetan baino ez da bideragarria.

Koaderno honen autoreek eskerrak ematen dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten Etorkizuna Eraikiz-eko ordezkariari emandako konfiantzagatik eta jaso dugun laguntza guztiagatik. Koadernoan jasotako iritzia ikerketa-taldearenak dira, nahiz eta oinarri diren lanak elkarrekin sortu ditugun.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

Laburpen exekutiboa

Planeta osoan zehar, herrialde eta erregioak trantsizio anitz egin beharrean dira erronka eko-sozialei aurre egiteko. Ezagutza zientifiko eta teknologikoak erronka horiei aurre egiteko zeregin garrantzitsua duela onartzen da, baina zein da gizarte zientzien eginkizuna? Koaderno honek eginkizun posibleetako bat aurkezten du: tokiko eta erregioetako gobernuekin batera gizarte-eraldaketarako lankidetzazko gobernantza eraikitzea, horretarako prozesuak erraztuz.

Koadernoak, zehazki, aldundi baten (Gipuzkoako Foru Aldundiaren, GFA) lankidetzako gobernantzaren aldeko apustuan eta hori gauzatzeko egin duen prozesuan oinarritzen da, gobernantza modu hau etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoa izango den kultura politiko berri baten eraikuntzarako tresna delarik. Elkarlaneko gobernantza honela definitzen da aztertutako kasuan: “erakunde publikoen, gizarte eragileen eta herritarren arteko lankidetzak instituzionalizatua politika publikoen ekosistema ahalduntzeko eta eraginkorragoa izateko; erakundeen, gizarte eragileen eta herritarren arteko kapital soziala indartuz egin behar dena, hausnarketa eta ekintza partekatuen bidez”.

Lankidetzako gobernantza garatzeko orduan zailtasunetako bat da bere izaera eta ezaugarriak kontzeptualizatzen dituen literatura zabal bat egon arren, gutxi direla hau nola eraikitzen den ulertzen laguntzen duten lanak. Behar horri erantzuteko, GFAk, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin batera, Lurralde Garapenerako Ikerketa Ekintza (LGIE) izeneko metodologia erabiltzea aukeratu du.

LGIE 2008tik garatzen ari da Orkestrako lankidetzak sareetan nazioarteko bazkideekin, batez ere Norvegiar (Agderreko Unibertsitatea) eta Argentinan (Praxis-Gizarte Ikasketen Institutua). Koadernoak azaltzen du nola GFA-rekin urtebeteko lankidetzak-lanaren ondoren, metodologia honen 6 elementu azaleratu diren, gobernantza modu kolaboratiboagoetara eraldatzen lagundu dutenak:

- Think tank-en konfigurazioa biltzeko eta dialogorako gune gisa
- Sortutako *gatazken* azaleratzea eta kudeaketa
- Ikerketa-taldeak betetzen duen paper kritikoa, erlazionalarekin batera (erresistentzia biguna -soft- deitu dena)
- Prozesua *erraztea* bai ikerketa-taldearen aldetik, bai arduradun politikoen aldetik
- Prozesua *emergentetzat* hartzea
- *Emozioak* prozesuaren parte gisa integratzea

Koaderno honen berritasunetako bat, ikerketa ekintzako kasuei buruzko aurreko argitalpenekin alderatuta, metodologia (edo egindakoaren oinarri filosofikoak) ez ezik, metodoa ere (egindakoaren deskribapen zehatza) partekatzen duela da. Metodoa Eranskin zabal batean biltzen da, irakurleei gobernantza urratsez urrats nola eraldatu den erakusteko.

Laburbilduz, koadernoak esperientzia erreal bat partekatzen du non, ikerketa ekintzaren bidez, lankidetzak-gobernantzaren diskurtsoa ekintzara eraman den. Hori horrela, koadernoak oso

gutxitan argitaratzen diren baina praktikan garrantzitsuak izan daitezkeen arazo sorta esplizitu egiten ditu:

- Politika arduradunen eta ikerketa-taldeen arteko ezberdintasun metodologikoak
- Plangintza-kulturaren nagusitasuna estrategiak sortzerakoan, eta horrek nola zailtzen duen prozesu emergenteen onarpena
- Eraldaketa sozialeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen euren denbora eskaintzeko dituzten zailtasun praktikoak
- Parte hartzen duten pertsonen neke emozionala



LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es